

EREMU PUBLIKOAREN NEUTRALITASUNA ETA GARBIKETA BERMATZEKO MOZIOA

Eraikin instituzionalak, kaleak, plazak, fatxadak, hormak, estalpeak, barandak edo petrilak espazio publikoaren parte dira. Espazio publikoa herritar guztien ondare partekatua da, eta, ondorioz, herritartasun osoari eta haren ordezkariari eragiten die.

Lehenik eta behin, espazio publikoa zaindu, errespetatu, eta mantendu egin behar da. Hori egin ezean, inpaktu estetikoaz haratago, inpaktu soziala eta ekonomikoa eragiten du.

Bigarrenik, espazio publikoak neutraltasuna errespetatu behar du, eta ezin da aldebakartasunez erabili herritartasun osoa ordezkatzeko ez duten jarrera politiko edo ideologikoen erakusleho pribatu gisa. Are gehiago, gaur egun, non sare sozialek edozein jarrera, eskaera edo kexa publikoki komunikatzeko aukerak unibertsalizatzen dituzten.

Hirugarrenik, espazio publikoa zaintzea bizilagunekiko errespetua da. Laburbilduz, herritartasun-kontua da.

Hala ere, gure herriko kaleak pintadez, pankartez eta kartelez beteta daude. Kasu askotan, ezabatzen ez diren eta urteetan irauten duten pintadek herriaren irudia nabarmen kaltetzen dute. Ez hori bakarrik, askotan, pankarta eta kartel horiek mehatxuzkoak edo iraingarriak diren edukiak izan ditzakete.

Udal-gobernuak du espazio publikoen garbitasuna eta neutraltasuna bermatzeko ardura eta ahalmena.

Beraz, Oñatiko EAJk, onarpenerako, mozio hau aurkezten du.

Oñatiko Udalak dio:

1. Gure kale eta plazek osatzen duten espazio publikoa, fatxadekin eta kaleko altzariekin, herritar guztien ondare partekatua da. Haren garbitasuna, harmonia estetikoa eta neutraltasun politikoa ondasun komun gisa bermatu behar dira.
 2. Udal-ordenantza errespetatzen ez dituzten pintada, pankarta edo kartelen bidez espazio publikoaz jabetzeko modu guztiak salatu behar dira.
 3. Pintada, pankarta edo kartel bidez espazio publikoetan erakusten den edozein mehatxu, irain edo gorroto-delitu mezuak gaitzetsi behar dira, eta berehala kendu behar dira.
3. Indarrean dagoen udal-ordenantza betearazi behar da.

